



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-01-18**

VIURTEA 1.339.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Kultur ekitaldiek «bide beretik» jarraitu behar dutela azaldu dute

TOLOSA «Kulturan apustu handia egin da eta erantzuna ona izan da», iritzi diote Udaleko kultur arduradunek

IZEN HANDIAK Noak bere azken diskoa aurkeztuko du apirilean; Omar Faruk eta Alasdair Frasen ere ariko dira 2-3



Aurrekontuen inguruan egin zen osoko bilkuraren une bat, Villabonako udaletxean. IMANOL GARCIA

2008ko aurrekontuak onartu ditu Villabonako Udalbatzak

AMASA-VILLABONA EAEk eta EBk aldeko botoak eman dituzte; EAJkoak abstenitu eta PSE-EEkoak aurka bozkatu du; guztira, beraz, aldeko zazpi bozka jaso ditu proposamenak 4

Iñaxio Perurena esku bakarrez 230 kiloko harria altxatzen saiatuko da

LEITZA Saiakera Getxoko Andra Marin egingo du datorren otsailaren 10ean 3

Eskualdeko ordezkari ugari Araitz-Beteluko III. Herri krosean

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Etzi izango da eta guztira 250 partaide izango dira 5

Candanchura irteera antolatu du Altzoko Udalak 4

Emakume bat hil da kamioi batek harrapatuta San Frantzisko elizaren ondoan

TOLOSA Emakumea zebrabidea igarotzen ari zen eta ez zuen zetorren kamioia ikusi; erietxera eraman eta ordu erdira hil egin zen 3

Villabonako sarrera asteburu honetan ireki dezakete

AMASA-VILLABONA «Herritarrak ez dira kexatu» errepidea moztuta egon delako 4

KULTURA, BIDE BERETIK



Fermin Muguruza, Alasdair Fraser eta Nathalie Hass nahiz Omar Faruk musikariak izango dira Leidorren datorren sei hilabeteko egitarauaren baitan. HITZA

Tolosa » Pasa den urteko kultur jardueren balorazioa egin du Udalak; datu hauek aztertuta, datozen hilabeteetako egitaraua prestatu dute.

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Urte bat hasten denean, eta garai horretarako egitasmoak egiten direnean, lehendabizi atzera begiratu beharra dago, eta aurreko urtearen balorazioa egin, akatsak ikusi eta hauek hobetzen saiatu ahal izateko. Hori bera egin dute Tolosako Udaleko kultur sailekoek. Alde batetik, jazko datuak bildu eta aztertu dituzte, eta bestetik 2008rako erronka eta asmoak aurkeztu dituzte.

Aurreko urteko datuak

Udalekoen esanetan, joan den urtean apustu nabarmena egin zuten kalitatezko kultur eskaintza bat ematen herritarrei, eta lortu dute. Hala, bide beretik jarraituko dutela nabarmendu dute kultur batzordekoek. Bestalde, gaineratu dute, lortu dutela, alde batetik, Mundua Tolosan bezalako ekimenek esker, nazioarte mailan izen handia duten artistak ekartzea, eta bestetik, herriko talde eta eragile ezberdinen eskaerak betetzea. Egitasmo guztiei lekua egin zuten egitarauan. Kultur batzordekoek puntu-puntu joan den urteko jardueren balantzea egin dute.

Alde batetik, Udaberri dantza taldearen 50. urteurrena, Txotxongilo jaialdiaren 25.a eta Bonberenearen 10.a aipatu dituzte, «hauek Tolosan dagoen ekimen kulturalaren adierazgarri baitira. Bestalde, pasa den urtean, aspalditik zetorren eskaera bat betetzen hasi zen, To.pic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa hain zuzen ere. Honekin, Tolosa, mundu osoko erreferente bilakatuko da arlo honetan. Andoni Iturzaeta, kultur zinegotziaren esanetan, «urte askotan hainbat pertsonen egindako lanaren egikaritzea izango da hau».

Gipuzkoa mailan «abangoardian» jarri da Tolosa, kultur eskaintzagatik. Hori lortzeko, Udalak talde ezberdinek egiten dituzten eskaeren artean oreka bilatu behar izan duela adierazi dute kultura sailekoek.

Tolosan Blues jaialdiari dagokionez, ekimena sendotuz doala azaldu dute, eta 2008rako aurrekontua handitzeko asmoa dutela. Bestetik, Mundua Tolosan ekimeneren balorazio oso ona egin zuten, honek ahalbidetu baitu, «mundu mailan izen handia duten

musikariak Tolosara ekartzea». Zine-forumari dagokionez, Udalaren laguntza areagotu egin da, eta joan den urtean eman zen urrerapauso nagusienetako bat bi saio jartzearena izan zen. Hori esker, ikusle kopurua handitu da. Honekin lotuta, abenduan ospatu zen zine-festak arrakasta handia izan zuten. Zine emanaldi komertzialei dagokionez, ez da aldaketa handirik eman eta oraindik ez da lortu nahi bezain beste jende erakartzea.

Haur liburutegiak hitz egitean ere, honen harrera ona aipatu dute Udalekoek. Errota Haur Liburutegian hainbat jardunaldi antolatzen baitira urtean zehar. Bestalde, maileru kopurua ikusi ondoren «ongi funtzionatzen duela» aipatu dute. Aranburu jauregia ere erakusketa garrantzitsuen agertoki izan da. Horren adibide dira, Elo-segrena, Epelde eta Basterretxearena, Okupgrafena eta Txotxongiloena.

2008rako erronkak

Joan den urteko datuak ikusita, hasi berri den honetarako zenbait asmo dituzte. Horien artean da liburutegia berrantolatzea. Hori dela eta, zerbiztu burua izendatuko dute laister. Bestalde, Iturzaeta liburutegia «xiki» gertatu dela eta handitzeko beharra duela adierazi du. Dena den, hau

oraindik erabakitzeko dagoela argitu du.

Abastosi dagokionez, aurreko legealdian onartu zuten hemen kulturarekin lotura zuen zerbitu egokitzeko, nahiz eta oraindik ez zehaztu zer. Hori dela eta osoko bilkuran onartu zuten hausnarke-ta egitea proposamen guztiak kontuan hartuta. Bestalde, Aralarrek prentsaurreko bidez zabaldu zuten informazioaren inguruan, Iturzaeta argitu du, «Aralarrek ez diela Udaleko beste kideei adierazi bere egitasmoen berri». Non aipatzen zen, Batzar Nagusietatik diru kopuru bat lortu zutela, Abastos eraberritzeko. Hori dela eta, beraiek ere honetaz prentsa bidez enteratu zirela azaldu du kultur zinegotziak. Dena den, proposamen horri ere irekita daudela gaineratu du Iturzaeta.

Tolosako Plan Orokorrekin lotuta, Bonberenearen kokapen berria eta Gorrotxategi museoarena ere zehaztea beraien helburuetako bat dela azaldu dute kultur departamentukoek. Bestetik Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa egikaritzea izango da 2008ko helburu nagusienetakoak. Azkenik, joan den urtean abian jarri zen Mundua Tolosa ekimena indartzen saiatuko dira. Horren adierazle da, nazioarte mailan ospe handia duen Noa abeslaria etorriko dela aipilean Tolosara.

» EGITARAUA

Urtarrila

- **Pagagnini**. Illana Produzioen emanaldia izango da gaur, Leidorren, 20:30ean.
- **Inauterietako haur jaialdia**. Hilaren 26an Aiz-Orratz elkartearen eskutik izango da Leidorren, 16:30ean.

Otsaila

- **Ostiral Meheko jaialdia**. Hileko lehen egunean, Arpegi taldearen eskutik izango da Leidorren, 22:45ean.
- **'Gaurko menua'**. Dar-darren ikuskizuna Leidorren izango da hilaren 15an, 20:30ean.
- **'Ni ez naiz txotxolo'**. Teatrortaren saioa izango da 16an, Leidorren, 17:00etatik aurrera.
- **'Biarritz Baleta Jr.'**. Gari Beltzaren eskutik, 23an izango da, 20:30ean, Leidorren.
- **'Festival de la Oralidad'**. Asvinean antolatuta otsailaren 23 eta 24an izango da hiriko kaleetan.

Martxoa

- **Pedro Guerra**. Hilaren 7an izango da Leidorren, 20:30ean.
- **Pirritx eta Porrotx**. Hilaren 8an, KMK'08ren baitan izango da, 17:00etan Leidorren.

Apirila

- **Soledad Ruz**. Flamenko ikuskizuna izango da hilaren 4an, 20:30etik aurrera Leidorren.
- **Noa**. Mundua Tolosan zikloaren baitan izango da hilaren 11ean, 20:30ean, Leidor antzokian.
- **'Sehaska'**. Kresala dantza taldearen emanaldia izango da 12an, Leidor antzokian, 20:30etik aurrera.
- **Javier Muguruza**. Hilaren 18an, 20:00etan ariko da Kultur Etxean.
- **Poxpolo eta Mokolo**. Hilaren 19an izango da, 17:00etan, Leidor antzokian.
- **'Antigonia'**. Hilaren 26an izango da Vaiven produkzioen emanaldia, Leidorren, 20:30ean.

Maiatza

- **'Magia teilatuetan'**. Txalo produkzioen saioa izango da hilaren 10ean, 17:00etan, Leidorren.
- **Amarozko antzerki taldea**. Hilaren 30ean ariko dira Leidorren, 22:30ean.
- **Omar Faruk**. Mundua Tolosa zikloaren baitan izango da 31ean, 20:30etik aurrera, Leidor antzokian.

Ekaina

- **Alasdair Fraser/Nathalie Haas**. Mundua Tolosa Zikloaren baitan izango da 7an, 20:30etik aurrera, Leidorren.
- **Udal dantza tailerra**. Hauen saioa hilaren 14an izango da Leidorren, 16:30etik aurrera.

Noak bere azken diskoa aurkeztuko du apirilean

Tolosa » Israeldarraz gain, Omar Faruk turkiarra eta Alasdair Fraser eta Natalie Haas eskoziarrak izango dira laster, gurean.

ERREDAKZIOA

Lehen sei hilabete honetako kulturekitaldi nagusienetako bat Noa, abeslari israeldarren kontzertua izango da. Tel-Aviv-en jaio zen 1969an, eta New Yorken bizi izan zen bi urtetatik 17ra bitartean. Rimon Schoolen musika ikasi zuen, eta bertan Gil Dor bere lankidea ezagutu zuen. Elkarrekin izugarriko arrakasta izan duten disko mordo idatzi eta egin dituzte Israelen. Nazioarte mailan, aldi, lau disko burutu dituzte: *Noa*, *Callins*, *Blue Touches Blue* eta *Now*.

Pakearen aldeko elkarrizketazaila sutsua da. Hala baieztatzen du hainbatekitaldietan parte hartu duenean. Beti erlijio eta kultura desberdinegana hurbilduz. Izan ere, lehendabiziko artista israelarra izan da, Marokora ofizialki gonbidatua izan dena. Gainera, Vatikanon behin baino gehiagotan abestu du, eta askotan ikusi izan ahal da Palestinako edota beste herrialde arabiarretako musikariek kolaborazioak egiten, Aljeriako Khaled musikariarekin esaterako.

Aurten Noaren nazioarteko disko berriaz gozatzeko aukera izango da. Honek *Genes & Jeans* izango du izena, eta martxoaren 11n argitaratuko da. Sustraiak eta bakeroak: tradizioa eta modernitatea, iragana eta orainaldia, Noaren bizitza eta esperientziak erreperitorio sugerenteenera eta liluragarriara pasatuta.

Puntako beste musikariak

Mundua Tolosan ekimen honen baitan, Noaz gain, mundu mailako beste hainbat musikari entzuteko aukera ere izango da Tolosan, lehen seihilabetean.

Noaren kontzertuaren ostean, ondorengo Omar Faruk turkiarra entzuteko parada izango da. *The Tree of Patience* izeneko bere azken lana aurkeztuko du Leidor antzokian maiatzaren 31n. Bere kontzertuak sentikortasun, trebetasun eta eutsiezinezko erritmoz beteriko gertakariak dira. Faruk aspalditik bizi da New Yorken, horregatik, ekialdeko eta mendebaldeko musikak batzeko aproposa da.

Hirugarren kontzertua ekainaren 7an izango da, Alasdair Fraser eta Natalie Haas-en eskutik. *In the moment* izeneko beraien azken lana aurkeztuko dute eskoziar musikariek. Biolinak eta txeloak elkarrekin sortutako doinu berriak uztartzea lortu dute.



Mundua Tolosan zikloaren baitan Noa abeslari israelarra ariko da. HITZA

Emakume bat hil da kamioiak harrapatuta

Tolosa » Eguerdian gertatu zen ezbeharra; Asuncion erietxera eraman zuten oso larri, baina segituan hil zen.

ERREDAKZIOA

Emakume bat hil zen atzo eguerdian kamioi batek harrapatuta, San Frantzisko elizaren ondoan.

Tolosako Udaltzaingoa azaldukoaren araber, eguerdian, 11:55ean, gertatu zen ezbeharra, emakumea Soldadu kaleko zebra-bidea igarotzen ari zenean. Hain-

bat lekukok adierazi zuten, oinezkoen semaforoa une horretan gorrian zegoen, eta kamioia igarotzen ari zela ez zen oharu antza. Hala, obretarako kamioiak aurreko gurpilekin harrapatu zuten emakumea. Txoferra ez zen oharu eta kalean zegoen oinezkoetako batek geldiarazi beharra izan zuen. Emakumea Asuncion ospitalera eraman zuten oso larri, baina hara iritsi eta segituan hil egin zela adierazi zuten arduradunek.

Lekukoek azaldukoaren araber, 60 urte inguru ditu ezbeharra jasandako emakumeak, eta Berriboia da.

Iñaxio Perurena esku bakarrez 230 kiloko harria altxatzen saiatuko da

ERREDAKZIOA

Asteasun 290 kiloko harriarekin izandako arrakastaren ostean beste erronka bati egingo dio aurre Iñaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak. Esku bakarrez 230 kiloko harria altxatzen saiatuko da.

Saiakera Getxoko Andra Marin egingo du datorren otsailaren 10ean, 12:15ean, Urrezko Aizkolari lehiaketaren finalerdiak jokatuko dituzten leku eta une berean, hain zuten.



Kornelio urkia, behean erdian, familiako kideak eta Olatz Peon Tolosako Udaleko bigarren alkateordea. I. TERRADILLOS

Kornelio Urkiak 100 urte bete ditu

Tolosa » Tolosarrak omenaldi xumea jaso zuen Tolosako Udalaren eskutik; igandean meza berezia eta bazkaria egingo dute.

I. TERRADILLOS

Kornelio Urkia tolosarrak 100 urte bete zituen atzo. Mendeko bitzita du beraz, eta urte horietan guztietan gertatutako makina bat pasadizo ditu kontatzeko. Batez ere, gerra garaioak ditu gogoan: «Arrasaten San Andres aldera gindoazen eta lehergailu batek eztanda egin zuen gure alboan, eztanda handia, eta korri egin nuen behe-rantz hilerri alderantz, inork baino azkarrago», gogoratzen du.

Gustura dago, eta ondo bizi dela

diote familiakoek. Baratza izan da azken urteetako bere afizioetako bat, duela 2 urtera arte egunero egunero zaindu duelarik. Han landatuta dituen artean, aipatzekoak dira sendabelarrak, askok eta askok erabili izan dituenak; urtero arduratu izan da hauek ondo mantentzeaz. Angulak nahi adina eta edozein erarajaten ziren garaia ere gogoratzen du Korneliok: «Ez zen gaur egun bezala, pentsa, ximaurra bezala ere erabiltzen zen, eta tortilan ere jaten ziren».

«Omenaldi txikia»

Tolosako Udalak omenaldi xumea egin nahi izan zion atzokoan, txapela eta *Esperientziak* eta Jesus Elosegiren argazki liburua oparituz. Omenaldiaren aurretik elizkizun berezia eskaini zioten San

Frantziskon. Dena den, bere urtebetetze eguna atzo bazen ere, igandean ospatuko dutela azaldu zuten familiakoek: «Meza berezia izango da, bera oso erlijiosoa baita, eta ondoren, familia osoak bazkaria egingo dugu bere omenez».

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar da. Interesatuek deitu 656 41 68 08ra.

AURKITUAKOAK

■ **Bizikleta.** Bizikleta bat aurkitu dute. Jabeak deitu dezala 649 85 17 65era.

Behar-Zanako pilotariak Udaberriko Txapelketan bihurtik aurrera

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Txapelketa amaitu berri dela, Villabonako Behar-Zana elkarteke pilotariak Gipuzkoako Udaberri Txapelketarekin hasi dira. Gipuzkoako Txapelketan kadeteak finalerdietan eta seniorrak finalerdi eta final-laurdinetan erori ziren.

Behar-Zanako sei talde ariko dira Udaberriko Txapelketan parte hartzen, kadeteetatik hasi eta senior mailara bitartean. Oraingo honetan bi berrikuntza dakartzatza Behar-Zanak, Iparraldeko Antton Pebet pilotariak parte hartuko baitu elkartearekin eta kadeteetako Lehen Mailan Lazkaoko eskolak utzitako Bereziartu eta Urretabizkaia ariko dira, Behar-Zanako Beniat Karrerarekin batera.

Bihar, Amasan, 15:30ean eskolarren partida bikoitza izango da benjamin eta alebin mailan. Ondoren, 16:15ean eskuz binaka senior mailan bi partida izango dira Ikusgai eta hauek amaitzean Gipuzkoako joko garbi partida. Seniorretan, Behar-Zanako Aranburu eta Iraeta Azpeitiako Ilunpekoen aurka; Behar-Zanako Lizaso eta Pebet Elgoibarko Lagunakekoen aurka.

Euskadiko Klub Txapelketan Aurrera-Saizen partidak

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saizeko pilotariak Euskadiko Klub Txapelketako partidak izango dituzte gaur eta bihar. Kadete mailako Balerdi Gurrutxagak Bidanian jokatu du gaur 19:30ean.

Bihar jokatu dituzte beste partidak. Beotibarren, 10:30etik aurrera, Iñigo Lizarribar (jubenetan banaka), Ioseba Baez eta Julen Mujika (seniorrak) eta Ugaitz Renobales eta Eneko Galarraga (ohorezko seniorrak). Balerdi eta Gurrutxaga (kadeteak) 19:30ean hasiko dira. 22 urte azpikoetan, Aratz Irazusta eta Koldo Galarraga Azpeitian ariko dira, 11:30ean.



Herenegun arratsaldean 2008ko aurrekontuei buruz egindako osoko bilkurren une bat. I. GARCIA

Udalbatzak 2008ko aurrekontua onartu du EAEren eta EBren botoekin

Villabona » Guztira aldeko zazpi boto jaso zituen proposamenak; EAJkoak abstenitu eta PSE-EEkoak kontra bozkatu zuten.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalbatzak onartu zuten herenegun arratsaldean 2008ko aurrekontua. Udalean dagoen EAEk aurkeztutako proposamenari udal talde horrez gain

EBk ere baiezkio eman zion, hau da, guztira aldeko zazpi boto jaso zituen. EAJtik agertutako lau zinegotziak abstenitu egin ziren eta PSE-EEko zinegotzi bakarrak ezezkoa bozkatu zuten.

Osoko bilkura azkarra izan zen. Aurrekontuaren gaian taldeek ez zuten iritzirik eman bakoitzaren botoaren inguruan ez eta galderarik egin ere. EAEk eta EAJk bilera egina zuten aurreko egunean eta bazekiten talde jeltzalea abstenitu egingo zela eta, beraz, aurrekontua

aurrera aterako zela. EAJtik azaldu zuten, «iazko aurrekontuen antzekoak dira eta ez dugu ikusi deigarria egin zaigun partidari ezezkoa emateko. Horregatik eta nola aurrekontuak egiterakoan parte hartu ez dugunez, abstenizioa bozkatzera pentsatu dugu».

Bestalde, osoko bilkura joateko udaltxerara sartzen ari zela, PSE-EEren zinegotzia den Iñaki Uriberri *PSOE torturatzailer* jartzen zuten pankartak erakutsi zizkion gazte talde batek.

7,1 milioi euro

EAEren udal taldeak publikoki azaldu zuten bere aurrekontu proposamena. Horren arabera 2008ko aurrekontua ia 7,1 milioi eurokoa izango da.

Kopuru horri beste 1,1 milioi euro gehitu behar zaizkio, aurreko Udalak eskatutako mailegua, hain zuzen. Aurreko legealdian ez zen erabili, ezta 2007ko urtean ere ez. beraz, diru hori erabilzete dago eta egungo Udalak nahi duenean erabilzete aukera izango du. Oraindik ez da planifikatu zertan gastatuko den.

«Aurrekontuen proposamena egiteko prestatutako inkestan herritarrek erantzundakoa oinarritzat hartuko dute diru hori erabilzete», azaldu dute EAEtik. Diru kopuru hori gastatzen hasten deenean hasiko da mailegua ordaintzen Udala.

Astebururako ireki dezakete Donostiatik Villabonara sartzeko errepidea

Villabona » Udaltzaingoak azaldu duenez, herritarrak «ez dira kexatu» errepidea moztuta dagoelako.

I. GARCIA

Oria Erdiko interzeptorean lanak egiten ari direla eta, burni zubitik Villabonako sarreraraino (GI-2631 errepidea) trafikoa moztuta

dago. Obraren arduradunek adierazi dutenez, asteburuan dagoeneko irekita egon daiteke. Astelehenean, baina, egin behar duten lan batengatik berriro itxi dezakete. Halere, asteartetik aurrera errepidea guztiz irekita egotea espero dute.

Villabonako Udaltzaingotik azaldu dutenez, «ez da kexarik izan» trafikoa moztu delako. Neurriak Zizurkildik trafikoko gehiengo egotea ekarri du eta Irualdetako semaforoan ilarak sortzen dira. «Trafiko gehiena dagoen orduetan semaforoa guk geuk maneiatzen dugu», azaldu dute Udaltzaingotik. «Arazo handirik ez» dela ari sortzen azaldu dute eta herritarrak gasolindegiko irteera hartzen ari direla herrira sartzeko diote.



Burdin zubiaren ondoko biribilgunea itxita dago herrirako norantzakoan. I.G.

ESKAINTZAK
Sherpa
Mendiko eskietan likidazioa.
Santa Klara 12 • 20190 Oreatza • Tf: Fax: 943 916182 • sherpa@dj.euskalnet.net



Rekalde Beteluko alkatea, Ruben Goñi mankomunitateko kirol teknikaria, Iriarte Araizko alkatea eta Zubillaga Arasex Herri Kirol Taldeko Kidea. HITZA

Araitz-Beteluko III. Herri Krosa etzi goizean izango da Betelun

Kirola » Arasex tadeak eta Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberriko kirol mankomunitateak antolatuta dute laua den lasterketa.

11:30era eta 6 euro ordaindu behar da. Haurren izen-ematea, berriz, 10:15ean egin ahal izango da.

Ibilbidea 8 kilometrokoa
Ibilbidea 8 kilometrokoa da, hau izanik egin beharrekoa: Betelu-Arribe-Atallu-Betelu bi aldiz: orokorrean laua da. Sariak izango dira baina, 32 minutu baino gutxiagoan egin beharko dute gizonzkoek, eta emakumeek, 38 minutu baino gutxiagoan. Garaikurrez gain, harran ezberdinetako koadrilentzako axuria izango da 40 minutu azpitik eginez gero. Hamaiketako elkarrean proba amaituta izango da.

Eskerrak eman nahi izan zituzten, «proba zoragarri honetan parte hartzen dutenei» eta aldi berean, kros honetan jendea parte hartzeragobidatu nahi izan zuten.

ERREDAKZIOA

Herenegun Betelun Araitz-Beteluko III. Herri Krosa aurkeztu zuten. Etzi izango da 12:00etan helduena eta haurrena, berriz, 10:30ean. Krosa Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberriko Kirol Mankomunitateak eta Arasex herrikirol taldeak antolatzen dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko jende asko hartzen du parte; aurtun 250 partaide inguru espero dituzte. Izen-ematea Beteluko plaza da igandean bertan 10:45etik

Candanchura eskiatzera joateko autobusa

Altzo » Udalak antolatuta du eta bakoitzak 3 euro ordaindu beharko du; otsailaren 10ean egingo dute irteera.

Autobusa ateratzeko gutxienez 15 lagun behar dira, bestela ez lirake joango.

Bestela, eskiatzaile talde handi bat osatzen baldin bada, merkeago atera daiteke hangoa alokatzearena. 06:30ean abiatuko dira Altzoko plazatik, eta 20:00ak aldera bueltatuko lirake.

ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak otsailaren 10ean (igandea) Candanchura (Aragoi, Espainia) eskiatzera joateko aukera zabaldu du. Hiru euro ordaindu behar da joan-etorria ordaintzeko, eta bazkaria eta eskien alokairua, forfait-a eta bestelakoak norberaren kontu izango dira. Hala ere, norberak elurretan aritzeko bere materiala ere eraman dezake. Luzapen eskia egiteko aukera ere izango da.

Izen-ematea udaletxean

Izena emateko azken eguna otsailaren bata izango da (ostirala). Altzoko udaletxean bertan, eta bestela telefonoz bertara deituta: 943 65 24 13.

Altzoko Udalak jendea animatu nahi du eskiatzera joateko, «egun polita pasatzeko aukera baita». Eguna elurretan igaro, aparkatzeko ardurarik izan gabe.



Otsailaren 10ean eskiatzera joateko aukera izango du nahi duen guztiak. HITZA

Laburrak

Bihar AHTren ibilbidea ikusteko mendi martxa

TOLOSA » Bihar goizean, 09:45ean Tolosako Triangulo plazatik abiatuta AHTrekin loturiko mendi martxa bat egingo dute. Izan ere, mendi-martxa honetan, AHTk Tolosan izango duen ibilbidea erakutsiko diete parte-hartzaileei, eta, horrez gain, «zer kalte eta eragin sortuko dituen» azalduko da. Oargi, Alpino eta Haitzetan Raju mendi-elkarrekin antolatuta dute mendi-martxa hau. Ondoren, bazkaria egongo da Oargin, 14:00ak aldera hasita. Datorren astean beste hainbat ekitaldi izango dira, eskualde mailako AHTren kontrako manifestazioa iragartzeko.

Intxurreko zaharrenak etxean ariko dira

ALEGIA » Gaur Alegiko Intxurreko senior mailako neska Idiazabalen kontra ariko dira Alegiko frontoian bertan 22:15ean. Saikapen nagusian 3. daude, lehen postutik 3 puntura bakarrik. Intxurreko lurraldekako lehen mailan dauden mutilek ere etxean jokatuko dute, baina bihar 15:30ean, Amara-Berriren aurka. Jubenilak eta kadeteak kanpoan ariko dira bihar: lehenek Zarkumendegi zelaian eta bigarrenek Usurbilen. Kopa jokatzeko ari dira, eta momentuz lortu zitezkeen puntu gehienak daukate, alegia, hiru.

Laburrak

EHNA tramitatzeko aukera izango da bi hilabetez

ALTZO » Altzoko Udaletxean EHNA tramitatzeko aukera dago urtarrila eta otsaila osoan zehar. Udalaren ordutegiaren baitan egin ahal izango da (12:30etik 15:30era bitartean) eta 3 argazki, 15 euro eta errol da agiria behar da hain egiteko. Informazio gehiago, Udaletxean.

Hautzaindegia buruzko bilera egingo dute

ALBIZTUR » Datorren asteartean Albizturko Kultur Etxean 17:00etan hautzaindegia inguruko bilera egingo dute interesa duten gurasoekin. Bertan azalduko dira zein den egungo egoera eta aurrera begira eman behar diren pausuak. Udalak deitutako bilera da.

Amezketak » Hirigintza eta obra batzorde, kultur batzorde eta ingurune koetara deitu dituzte datorren asterako.

Plazako frontoia ere egokitzeo asmoa erakutsi du hirigintza eta obra batzordeak, eta baita paper fabrikako ate ondoko espaloia zabaltzea ere.

Kulturari buruz asteartean

Kultura batzordeak asteartean egingo du bilera 20:30ean balioanitzeko gelan. Herriko 5 talderekin egingo dute bilera: musika, pilota, dantza, bertso eskola eta Guraso Elkarteak dira jorratuko dituzte, gai hauetaz hitz egiteko: elkarrean urteko egitarauaren azalpena, batzordearen balantzea,

Kultur Etxea izango denaren lokalen erabilera eta 12-16 urte bitarteko gazteen dinamizazio prozesua, udako ludoteka.

Informazio gisara honakoa emango dute ezagutzera: urteko kirol eta aisialdi programa.

Gizarte, ongizate eta ingurumen batzordeak datorren asteazkenean bilduko da 20:00etan. Kasu honetan, hitzaldi bat antolatuta dute urarekin lotuta: Ur kontorsioaren sartzak ekar ditzakeen onura eta desabantailak, Iñigo Eloseggi Gipuzkoako Urauko kudeatzailearekin.

ERREDAKZIOA

Hirigintza obretarako batzordeak astelehenean 20:30ean balioanitzeko gelan batzar bat egingo du. Bertan, beste artean, Jauregi eremuko plan partzialaz, Amezketako saneamenduz eta Kultur Etxeari buruz ariko dira.

txokoa **h**

5 sarrera pare

irabazleak:

- Arantxa Azpiroz (Leitza)
- Garbiñe Ruiz de Egilaz (Tolosa)
- Rosario Arozena (Lizartza)
- Miren Josune Zubeldia (Tolosa)
- Xanti Saizar (Tolosa)

PA GAG NIMI

Yllana antzerki taldearen eskutik



urtarrilak 18 ostirala, 20:30ean • Tolosako Leidorren

HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

4 sarrera pare

irabazleak:

- Garbiñe Mujika (Villabona)
- Mikel Izagirre (Tolosa)
- Arantxa Zinkunegi (Tolosa)
- Aiztondo Zerbitzu Mankomunitatea (Zizurkil)



BRUESA GBC

Union Baloncesto La Palma

OSTIRALA

URTARRILAK 18-21:00

ILLUNBE

sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue



Haute Dantzak, txistulariak, mozorroak etabar ikusteko aukera izango da Lizartzako Inauterietan. IÑIGO ASENSIO

Lizartzako Inauteriak bihar hasiko dira eta jendearen parte-hartzea eskatu dute

Inauteriak » Bihar hasiko dira eta urtarrilaren 25etik 27ra jarraituko dute mozorro, dantza, bazkari eta lehiaketa artean.

ASIER IMAZ

Inauteriei bihar emango diete hasiera lizartzarrek 12:00etan. Udal ordezkariak eta txekorra plazan egongo dira ordu horretan, herri-tarrek bitartean, gibela dastatuko dute. Ondoren, Inauterietarako aukeraturako udal ordezkariak eta herritarrak, antzerkia eta Otsolar taldearen dantza saioa ikustera joango dira.

Lehen egunaren ostean, atsedernaldia etorriko da eta Inauteriek urtarrilaren 25ean jarraituko dute.

Gaur 20:30ean entsegua

Lizartzako Inauterietan dantza ardatza denez, dantza saio ugari antolatuko dituzte. Antolatzaileek ja-

kinarazi dutenez, gaur 20:30ean Inaute dantzen inguruko entsegua egongo dute eta parte hartu behar dutenei deialdia luzatu die, entsegua ager daitezen eskatuaz.

«Apaindu ditzagun balkoiak!»

Aurten ere Lizartzako balkoirik ederrenak saria jasoko du. Balkoiak apaintzeko garaian, «ideia guztiak» onartzen direla aipatu dute antolatzaileek, «ea aurten ere epaimahaikook lan zaila izaten dugun saria nori eman erabakitzerakoan».

Bestalde, urtero karrozetan aterratzen direnei ere «oparixto bat» ematen diete, eta aurtengoan ere horrela izango omen da. Mozorro berezia egiten duenak saria ere berezia izango duela jakinarazi dute, Luzea Saria hain zuzen ere. Beraz, «saiatu mozorro berezia eta xelebrea prestatzen. Animo denoi!».

Bazkari txartelak ere jadanik salgai jarri dituzte, urtarrilaren 24ra arte egongo dira eta helduek

17 euro ordaindu beharko dituzte, haurrek berriz 10 euro.

«Demokrata mozorroa»

Lizartzako errealtatearen inguruko hausnarketa ere plazaratu dute Inauteriei ongi-etorria ematen dien idatzian. «Inauteriak mozorrotzarekin lotzen ditugu beti. Baina zorritzarrez, herriarengan sinisten ez duten basko batzuk eta euskaldun gutxi, demokrata mozorroa jantzi zutenean ez ziren demokrata izaeraz kutsatu. Amonak esaten zigun: pentsatutakoaren arabera ez baduzu jokatzeko, azkenean egindakoaren arabera jokatu duzu».

Bestalde, Lizartzako Udal Alternatiboak ere bere hausnarketa plazaratu du. «Egoera antidemokratiko batean» bizi direla aipatzen dute, «Frankoren garaietan baino okerrago. Hauteskondeei jaramonik ez die egin, alkate arrotz bat inposatu dute eta men egiten ez duen ororentzat, kartzela».

» EGITARAUA

Bihar

■ **12:00.** Inauteriei hasiera emango diete gibela dastatuz, udal ordezkariak eta txekorra plazan direla.

■ **Ondoren.** Antzerkia eta Otsolar Dantza taldearen eskutik dantza saioa.

Urtarrilak 25, ostirala

■ **14:15.** Eskolak antolatuta mozorro festa.

■ **Ondoren.** Kalejira herriko kaleetan zehar.

Urtarrilak 26, larunbata

■ **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira egongo da dantzari, txantxo eta txistulariek giro alaituko dutelarik.

■ **07:30.** Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.

■ **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia egongo dute gosaria egiteko.

■ **12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangean irteera egongo da Errota ataritik.

■ **13:30.** Inauterietako partaide guztiak kalejira egongo dute, Arrateko zubitik irtenda.

■ **Ondoren.** Denek elkarrekin bazkaria egongo dute herriko frontoian.

■ **18:00.** Gurdi eta mozorroak

Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jeisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

Urtarrilak 27, igandea

■ **11:00.** Agintari eta dantzariak Meza Nagusira joango dira, txistulariek eskainitako Agintari doinuaz lagundurik.

■ **12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen; gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera ibiliko dira.

■ **13:00.** Lizartzako Inaute Dantzak eskainiko dituzte herriko plazan.

■ **14:00.** Inaute Bazkaria egongo da herriko pilotalekuan.

■ **Ondoren.** Txaranga, dultzainero, jokuak, zozketa, sariak, ...etab. egongo dira.

■ **20:30.** Plazan ijitoa erreko dute eta honekin inauterien amaiera helduko da.

Laburrak

Sendi Ekintzaren batzarra bihar 20:00etan

IBARRA » Sendi Ekintza Elkarteko batzarra bihar egongo dute 20:00etan. Bertan urtean zehar egindako ekintzen berri emango dute. Horretaz gain, zuzendaritzako kideen aldaketa eta kontuen egoera aztertuko dituzte. Azkenik etxearren atzealdean egongo diren berritze lanek taberna eta sagardotegian eragingo dituzten ondorioen berri emango dute. Kuoten ordaintzari dagokionez, 20 euro ordaintzeko hiru hilabeteko epea jarri dute eta sagardo berriaren irekiera eta elkartaren festan egongo den Kantu Afarian izena emateko zerrendak Zubiaurre eta Sendi Ekintzan jarri dituztela aipatu dute.

Odola emateko aukera urtarrilaren 23an

BERASTEGI » Berastegiko Odol-Emaleen Elkarteko kideek jakinarazi dutenez, urtarrilaren 23an, asteazkenean, herriko eskolan odola emateko aukera egongo da 18:30etatik aurrera. Odol-emaileen kopuruan aldaketak egon diren arren, Elkarteko kideak gustura agertu dira; «mila biztanleko herri batentzat ez dira kopuru makalak izaten ari», aipatu dute.

Hautesle Zerrendak jendaurrean egongo dira

IBARRA » Ibarra Udal herritar guztiei zuzendu zaio, indarrean dauden Hautesle Zerrendak, jendaurrean ezarrita egongo direla esateko. Hauek, urtarrilaren 21etik urtarrilaren 28ra bitartean egongo dira ikusgai, bi datak barne. Epe honetan, hautesle-zerrendan beharrezkotzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izango direla jakinarazi dute.

Diru laguntzak eskatzeko epea otsailaren 15era arte

IBARRA » Ibarra Udal Kultura eta Gazteria Sailak jakinarazi duenez, 2008. urteko kultur jardueretarako diru laguntzen deialdia irekirik aurkitzen da otsailaren 15a bitarte. Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira eskaerak eta informazio gehiagorako ere bertara joan behar da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

JOKIN BILDARRATZ › Tolosako alkatea

«Herrietako demokraziaren zaintza bermatzea da helburua»

Politika › Pasa den urteko abenduan Europako Udalerrietako eta Eskualdeetako Kontseiluko Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zuten.

INIGO TERRADILLOS

Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseiluko (CEMR) Zuzendaritza Batzordeko kide izendatu zuten pasa den urteko abenduan Jokin Bildarratz (Tolosa, 1963) Tolosako alkatea eta Eudeleko presidentea. Stuttgart-en (Alemania) izendatu zuten kontseiluko kide zuzendaritzako beste kide berriekin batera, eta Michael Häupl berriro aukeratu zuten presidente posturako. Datozen hiru urteetan izango da tolosarra 1951n Europako alkateen eskutik sortu zen elkarteko zuzendaritzako kidea. Udal eta eskualde mailako 100.000 agintari baino gehiagoren ordezkaria da CEMR, eta «udal demokraziaren alde» lan egiten du «Europa indartsu eta kohesionatu bat lortzeko helburuarekin». Bertan duen eginkizuna zertan datzan azaldu du Tolosako alkateak.

Noiz biltzen da Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseilua?

Hiru urtez behin antolatzen da plenarioa deitzen den bilera bat Europako herrialde batean Europako alkate guztiak gonbidatuta daudenak. Instrukzio izan zen aurrerokoa, eta hurrengoa 2009an izango da Suedian.

Zu Zuzendaritza Batzordeko kidea izango zara.

Bai, 60 alkatek osatzen dugu zuzendaritza taldea. Besta talde bat ere badago 15 alkatez osatua, eta hauek maiztasun handiagoz elkar-tzen dira. Batzar orokorra hiru urtetik behin izaten da, zuzendaritza taldeak lau bilera-edo egiten ditu urtean, eta beste taldeak hilerobiltzen da. Europako kontseiluan dauden herrialdeak sartzen dira bertan.

Zein da helburu nagusia?

Udaletxeetako ikuspegitik ikustea Europa osoan demokraziaren berma ematen dela. Eudelek Euskal Autonomia Erkidegoan duen lan bera da, han, Europarekin. Bestera batera esanda herrietako demokraziaren zaintza aurrera eramatea izango litzateke eginkizuna.

Nola egiten duzue lan?

Hainbat gai lantzen ditugu pil pil daudenak, eta horrela beste herrietatik ikasten duzu han egiten dutenarekin, eta beste ere ikasten dute guregandik. Azken batean, esperientzia ezberdinen truka-keta bat da, eta espero dut Eudel bezala eta Tolosako udaletxe bezala onurak ateratzea, besteen-

gandik ikusi, aztertu eta ikasita. Elkartrukaketa horretan guk zenbat eta informazio gehiago izan aukeragehiago izango dugu.

Une honetan, esaterako, ze gai ari zarete lantzen?

Eudel bezala Dinamarkako udaletxeetako elkarrekin lan bat ari gara elkarrekin egiten, gauza berdinak kezkatzen gaituelako. Udalerrietako legea delakoa ari gara lantzen, konpententzia kopurua, finantziarioa... Horrela hainbat ikastaro hemen eta han egitea da asmoa. Bestalde, Vienak mugikortasunaren inguruan oso pauso handiak eman ditu azken urteotan. Ezberdintasun handiak daude, esaterako Tolosa eta Vienaren artean, baina esperientziatik ikas dezakegu, ondoren gurera ekartzeko baliatu ahal izateko.

Beste udalerriekin konparatuta maila onean al gaude?

Maila ezberdinak daude. Finantziario ikuspegitik, gure udaletxeak kontuan hartzen baditugu, maila onean gaude beste lurraldeekin

«Beste herrietatik ikasten duzu han egiten dutenarekin, eta alderantziz»

«Finantziario ikuspegitik, beste lurraldeekin konparatuta, maila onean gaude»

«Udaletxeetako konpetentziak zein diren argitzeko ari gara orain lanean»

konparatuta. Esaterako, Espainiako udaletxeekin konparatuta, finantziario bikoitza baino gehiago dugu hemen, beraz, udaletxeek badute bere pisua. Eta beste hainbat lurraldetan ere ez dute guk bezainbeste. Beste batzuk ere badaude gehiago dutenak. Horrek ez du esan nahi ondo gaudenik, izan ere, gure konpetentziak argitzea jakin nahiko genuke, hainbat konpetentzia gure diruarekin ordainduta egiten baitira, eta ondorioz, gureak diren gauzetarako ez da dirurik gertatzen. Horregatik ari gara udalereietako legea delakoa lantzen, gauza hauek argitzeko.

Besteen esperientziatik ikastea baliagarria da, beraz.



I. TERRADILLOS

Bai, oso baliagarria. Guk beti saiatu behar dugu ahal den gehien jasotzen, baita ematen ere, baina asko dugu ikasteko besteengandik oraindik. European egiten diren obrak, esaterako, hemen ez dira egiten, hemen askoz garestiago direlako. European, adibidez, hainbat herri daude 15.000 biztanlekoak seinale guztiak kenduak dituztenak; horrek esan nahi du heziketa oso garatuta dutela mugikortasunaren ikuspegitik. Guk hori egingo bagenu arazo handiak izango genituzke. Beraz, hortik ere

baduguz erikasia, eta horrela beste arlo askorekin.

Alkate, Eudeleko lehendakari, eta orain Europako Udalerri eta Eskualdeetako Kontseiluko Zuzendaritza Batzordeko kide. Ez al da gehiegitxo?

Familia da honetan guztian gehien ordaintzen duena, izan ere, astean nere lanordu kopurua 90 orduraino iris daiteke, eta etxean ordu gutxiago egiten ditut. Elementu bakoerak eta ezkorak ditu honek, eta bien arteko oreka bilatzen jakin behar duzu.

Kultur etxe berriak



› Kale kantoitok

Joxemi Saizar

Bonberenea zutabe honetan askotan aipatzen dut (goraipatuz beti) eta ez dut nahi gai finkoa bihurtzea, baina lehengo astean egunkariet argitaratu duten albiste batek atentzioa eman dit: Tolosako Udaleko alderdi guztiak (daudenak) aho batez Bonberenea 10 urtetan egindako lana txalotu egin dute mozio baten bidez. Gazteek (hemen eta leku guztietan) lokalak okupatu izan dituztenean erakundeak kontra izan dituzte beti. Tolosan ere hala izan zen Euskal Herria plazan, suhiltzaileen etxean eta beste lekuetan. Gaur egun Bonberenea dagoen lekuan ez dut uste halakorik gertatu zenik, Udaltzainak eta ertzainak baldiztegitik txalotzera pasatu da urte batzuetan Udala. Beno, ez dago gaizki. Baina ez dakit hau ere gehiegi komentote zaien gazteei. Autogestioa, diru laguntza ofizialen falta eta lokal hutsten okupazioa izan dira urteetan beraien leloak eta orain bedekapen ofizial guztiak jasota, nolabait desarmatuta, apoltronatuta ez al dira gelditzen?

Txotxongilo zentroaren informazio zabalagoa jaso herenegun egunkari honetan. Topico izenez hasi dira deitzen, berriro ere ingelesezko siglele lehentasuna emanez (BECen adibidea hor dago urruti joan gabe). Topikoa eta tipikoa. CIT izena erabiltzen ere ikusi dut, gaztelaniazko siglelekin. Euskarazko bertsioa, beti bezala, atzetik etorri behar. Txotxongilo Jaialdiari Titirjai izena jartzea ondo iruditu zitzaidan bezala (eta hala esan nuen bere garaiant kontsultatu zitzaidanean), kultur zentro berriarentzat hona hemen nire proposamenak: Titirigune, Panpinetxe, Sorgintxulo, Txantxoleku... Bertan antzerkiak, zinema, kontzertuak, hitzaldirak, proiektzioak... ere izango direla ahaztu gabe.

@ Zurea da hitza. Zure herri- arlo edo inguruko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako, zurea da hitza izeneko atalean, nahi duzun berria sartu besterik ez duzu egin behar, zure datuak emanaz. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu, eta orain arte jendeak sartu dituen berriak ere ikus ditzakezu. Beraz, badakizu, webgunean eta egunkarian ateratzea nahi duzun zurek baduzu, sartu zurea da hitza atalean.

www.tolosaldeko-hitza.info



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Teléfonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Yllana antzerki taldeak eta Ari Malikian biolin jotzaileak *Pagagnini* antzezlan eskainiko du Leidor aretoan 20:30etik aurrera, musika eta umorea uztartuz.

Musika

■ **Tolosa.** Agustin Carbonell *Bola* gitarra jotzaile flamenkoaren kontzertua izango da entzungai Fronton kafetegian 23:30etik aurrera.
■ **Tolosa.** Victim Chaos (Japonia) eta Surfin Kaos musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Deialdiak

■ **Alkiza.** Hilaren 26an Galdaragi-leen Eguna ospatuko duite herrian. Entseguak asteazkenean 20:30ean eta larunbatean 16:30ean izango dira Kultur Etxean.
■ **Alitza.** Candanchura eskiatzera joateko autobusa antolatu duite Udaketik, 3 euroren truke. Izena udaletxean eman behar da (943 65 24 13 telefono zenbakian). Otsailaren 10ean joango dira 06:30ean ateraz. Izena emateko azken eguna, otsailaren 1a (ostirala).
■ **Alitza.** Udaletxean ENHA tramitatze aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkari adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Unax Lizarraga Calvo (Zizurkil-Andoain). Zorionak potxolo zure 4. urtebetzean! Zure familia.

Kilometroen eta HITZAren arteko elkarlan hitzarmena sinatu dute; euskalgintzako bi eragileen arduradunek «elkarlanerako asmo eta borondate sendoa» agertu dute.

Elkarlana ere 'Eraikitzen'

ERREDAKZIOA

■ rurako ikastolak antolatuta, Irurak jasoko du aurten Kilometroak jaia, Gipuzkoako ikastolen festa. Euskalgintzako bi eragile izanik, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN arduradunek eta Kilometroak 2008ren koordinatzaile orokorrekin elkarlan hitzarmena sinatu dute.

Bertan «elkarlanerako asmo eta borondate sendoa» agertu dute bi alderdiek. Atzo goizean sinatu zuten hitzarmenean izan ziren Igor Elortza eta Joxe Mendizabal Kilometroak 2008ko koordinatzaileak eta Noelia Lataburu HITZAREN zuzendaria eta Jon Mujika Tolosa Herria Hedabideak E.Mko kudeatzailea.

Harturiko konpromisoak

Baldeek hainbat konpromiso hartu dituzte, «elkarren babesa eta, aldi berean, laguntza ezin bestekoa delako», Elortzaren esanetan. HITZA euskarazko tokiko komunikabidea izanik «oso garrantzitsua» ikusi dute bi alderdiek elkarlana.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, besteak beste, egunkarian Kilometroen inguruko informazio zabala eta tarte berezia eskaintzeko konpromiso sendoa hartu du, «preferentziatzeko tratua» emango diolarik.

Kilometroak 2008ko koordinatzaileek, euren aldetik, jaialdiaren inguruko ekitaldietan eta egunean bertan HITZAREN presentzia bermatzeko konpromisoa hartu dute.

Atzoko sinadura ekitaldian Elortzak eta Mendizabalek jakitera eman zuten, «Iruran jendea oso gogotsu dago eta lanerako gogo handia erakusten ari da; oso



Ekzer-eskuin: Jon Mujika, Noelia Lataburu, Joxe Mendizabal, Igor Elortza eta Alex Lasa. I.T.

ondo antolatzen dira guztiak». Batzorde guztiak martxan daude dagoeneko «baina urtea oso luzea da eta indarrak gordetzea da garrantzitsua». Otsailerako urteko ekitaldiak antolatuta utzi nahi dituzte, «guztia ondo lotuta egon dadin».

Webguneetan ere elkarlana

Bi eragileen webguneek ere elkarrekin egingo dute lan hitzarmenaren ondorioz. Hala, www.kilometroak.net eta www.tolosaldeko hitza.info orrialdeetan elkarren berri emango dute eta batetik bestera igarotzeko ahal izango da.

hitza ren eskutik

G PUNTUA
GIPUZKOAKO BERTSOLARI
TXAPELKETA 2007

Finaleko DVDa

Finaleko bertsosaldi hautatuak



Hitza ren harpidedunentzako eskaintza berezia **6 €**

Deitu: **902-82 02 01**



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

agurrak

urtebetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker,

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa